

Maddi Mendizabal Lekuona

D maila • 2 saria

Kaixo, Maddi Mendizabal Lekuona naiz, 13 urte ditut eta Zegamakoa naiz. Loinazpe ikastetxean ikasten dut, 1H gelan. Bi anaia dauzkat, bat zaharragoa, Unai; eta beste bat gazteagoa, Enaitz. Nire zaletasuna atletismoa da. Dantza egitea ere oso gogoko dut. Atletismora Ordiziara joaten naiz, Txindoki Atletismo Eskolara. Nire lagunekin egotea ere asko gustatzen zait. Ea gustatzen zaizuen!



LAMIAREN ALABA

Bazen behin Zegama izeneko herri txiki eder bat. Herrixkatik Oria ibaia igarotzen zen, Aizkorri jaiotzen den ibaia. Momentu hartan Aizkorri zuriz jantzita zen eta izugarritzko hotza egiten zuen. Ane, ordea, gustura zebilen alde batetik bestera, elurretan jauzika. Ane hamaika urteko neskatala bat zen, alaia eta berritsua. Altua zen eta begi marroiak zituen. Haizeak bere urre koloreko kizkurak nahasten zituen jauzika zebilen bitartean. Baina Ane ez zen edonolako neskatala, bazuen sekretu bat: lamia baten alaba zen. Txikitatik gorde izan zuen sekretu gisa, ez baitzuen nahi bere lagunak arraroa zela pentsatzerik.

Din! Don! Din! Don! -zegoeneko hamabiak ziren, etxera itzultzeko ordua. Ane segituan etxera bidean jarri zen, ez zuen berandu iritsi nahi. Bestela ama haserretu egingo zen eta ez zuen halakorik nahi. Bazkaltzeko gogoko zuen zerbait egotea espero zuen, makarroiak, babarrunak... Bat-batean, ezusteko mugimendu batek bere gogoetetatik atera zuen. San Adriango kobaren inguruan zegoen eta zuhaitz baten adarrak mugitzen ikusi zituen, eta adarretan pilatutako elurra amiltzen. Txori bat izan zela pentsatu zuen, zer bestela? Ane, atzera bere pentsamenduetan murgildurik, haitzulotik igarotzen hasi zen. Baina leizetik irten baino lehenago, beste mugimendu bat eta Ane desagertu egin zen, arrastorik utzi gabe.

Bizkitartean, Aneren ama sutan zegoen, zergatik ez ote zen iristen? Arian-arian, haserrea kezka bihurtu zen. Bere alaba ez zen agertzen, eta hori oso arraroa zen, Ane esaneko neska baitzen. Azkenean, bere lagunengana jotzea erabaki zuen neskatoa aurkitzeko. Lamiez gain, sorginei ere galdetuko zien, bai hori izango zen onena, zenbat eta jende gehiagori, hainbat hobe. Han joan zen mendian gora, bere alaba aurkitzeko itxaropenez. Lehenengo, lamien bila joan zen. Ibaian zeuden beren ile luzeak orrazten urrezko orraziekin, ohikoa zen bezala. Aneren desagertu berri ematerakoan, denak prest agertu ziren laguntzeko eta sorginen kobara bidean jarri ziren. Sorginak bertan aurkitu zituzten, suaren inguruan eserita. Haiek ere laguntzeko prest zeuden. Bilaketa hasteko, taldeka banatu ziren. Sorginak sorginekin eta lamiak lamiakin. Sorginak basoak miatzen hasi ziren eta lamiak erreka inguruak, baina Ane ez zen inon ageri. Ordurako eguzkia Aizkorriren atzean ezkutatzen hasi zen eta ilargia ateratzen. Denak atsekabeturik bueltatu ziren beraien etxeetara edo leizeetara. Aneren amak ez zuen lo

PROSA

hartu, bere buruan milaka galdera zebiltzan bueltaka. Zer gertatu ote zitzaion? Ondo egongo al zen? Ondoren, irudi beldurgarri bat agertu zitzaion, Aneren gorpua belarretan etzanda, begiak itzalita eta bere azal leuna hotz.

Gau osoan ez zuen begirik bildu, baina egunsentia iritsi bezain bizkor, bere alabaren bila joan zen, ordukoan bakarrik. Gora eta beheara ibili zen, baina orduan ere ez zuen arrakastarik izan. Iluntzean San Adriango leizera joan zen bere burua lasaitzeko asmoz. Urrunera begira zegoela, zerbaitek begirada desbideratu zion. Zuhaitz bat zen, baina gainerakoek ez bezala, ez zeukan elurrik gainean. Oso arraroa zen, dena elurtuta baitzegoen. Zuhaitzera inguratu eta orduan ikusi zuen. Neskato bat etzanda, begirada galduarekin, elurra bezain zuri eta zurrun. Ez, ezin zen egia izan. Bera zen, Ane, baina ez zuen arnasarik hartzen. Orduan bi malko lodi irristatu ziren emakumearen masailetatik beheara. Bere alaba galdu zuen, bere alaba bakarra. Emakumeak neskatoa besoetan hartu eta herrira jaitsi zuen, behar bezalako agurra egiteko.

Hurrengo egunetan beste galdera bat zebilen Aneren amaren buruan, nola gertatu ote zen horrelako zerbait? Herriko liburutegira joan zen, gogoan baitzuen izaki misteriotsu batetaz zerbait irakurri izana. Eraikin zaharrearantz sartu zen, bere hanka azpian egurrak karraska egiten zuela. Bertan aurkitu zuen liburutegiaz arduratzen zen gizona, leihotik begira zegoen. Emakumeak eztarriarekin hots bat egin eta segituan eman zuen buelta arduradunak, eta honela galdetu zion:

- Zeren bila zabiltza?

- Liburu bat nahi dut, izaki mitologikoei buruzkoa. -Erantzun zion emakumeak. Segituan gizonak hainbat liburu atera zizkion, batzuk lodiak, beste batzuk meheagoak, batzuk oso zaharrak eta hautsez beteak eta beste batzuk berriak. Liburu batek atentzioa eman zion, lodia zen eta zaharra. Azala ikustea zaila zen hautsezko geruza lodi bat baitzuen. Hartu eta putz egin zion, hautsa gainetik kenduz. Orduan azala ikusi zion, izaki arraro bat zen, beldurgarria. Ireki eta irakurtzen hasi zen. Honela zioen "Izaki hauek koba ilunetan bizi dira. Kontuz ibili behar da hauekin, gizakiak erraz hiltzen baitituzte. Gizakiak harrapatu eta ito egiten dituzte, beraien eskuekin lepoa inguratuz..." Ez zegoen zalantzarako zirrikiturik, horrek hil zuen Ane. Emakumeak liburu utzi eta liburutegitik irten zen. Negarrez joan zen etxera eta dena ahazten saiatu zen, baina ezin.

Hurrengo urteetan, bere lehengo bizimodura itzuli zen, lamiekin. Bizimodu hura utzi zuen bere alaba izandakoan, bere alabarentzako onena zela uste baitzuen, baina itzultzeko ordua zen. Iluntzeetan, San Adriango haitzulora joaten zen izarrak nola irteten ziren ikustera. Tarteka sentipen bitxi bat izaten zuen, norbait bere ondoan balego bezala eta Aneren algarak entzuten zituen, urrun, baina aldi berean hurbil.